

**“Konpromiso bat hartu nuen eta konfinamenduan egon arren Ekuadorren geldituko naiz”**



**Iraide Donaire Hidalgo**  
Misiolaria Ekuadorren • 9

**“Garrantzitsua da ikustea gaixotasun krisialdien eta naturaren kudeaketaren arteko erlazioa”**



**Miren Onaindia Olalde**  
EHUko ekologia irakaslea • 3

## Merkataritza txikia irtenbide bila

Koronabirusaren krisiaren aurrean, dendariak likidezia arintzeko aukera bila hasi dira. Durangon, erosketa bonuen kanpaina ipini dute martxan udalagaz batera. 15.000 euro batu dituzte dagoeneko. Elorrión eta Abadiñón ere udalen laguntzak jasotzen ari dira • 10-11



## Domekatik aurrera, umek ordubeteen paseatzera irten dezakete

Azkenean, heldu da umek kalera irteteko ordua. Domekatik aurrera izango da, egunean ordubetean, 9:00etatik 21:00etara. Nagusi batek lagunduta irten beharko dute, gehienez hiruko taldetan, eta beharrezko distantzia neurriak hartuta. Ezingo dira jolas-parkeetan jolastu, baina etxeko jolasak atera ahal izango dituzte kalera. • 4



## "Salmenta ona" Durangoko baserritarren azokan

**Durango** | Baserritarrak pozik daude joan zen zapatuan azoka berriro zabaldu eta gero herritarrek izandako erantzunagaz. Segurtasun neurriak zorrotz zaindu ziren eta bezero asko joan ziren erostera. Eurretari ugarri berriak zirela nabaritu zuten saltzaileek. • 2

**ALKIMAX**  
Irtenbideak alokatzen ditugu

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550  
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net

[www.alkimax.net](http://www.alkimax.net)



Hosto-haizagailua



Enborrak ezpaletan zatitzeko makina



Paper birringailua



Hortzak mozteko motosega OREC

**NOBEDADEA!**



Durangoko merkatu plazako irudiak, joan zen zapatuan.

## “Bezeroengan berriro Durangoko merkatu plazara joateko gogoa igarri genuen”

Durangoko baserriarren azokak berriro zabaldu zituen ateak joan zen zapatuan, eta, segurtasun neurriak errespetatuz, jende asko joan zen erosketak egitera

**MERKATU AZOKA** • JONE GUENETXEA / JOSEBA DERTEANO

**Ohiko erosleak ez ezik, jende berria ere joan zela azpimarratu du Urdaspal Alberdik, Soloko Durangaldeko nekazari ekologikoen elkarteko kideak, eta mota horretako esparruen garrantzia azpimarratu du.**

**Zer giro egon zen azokan?**

Oso ondo joan zela esan dezakegu. Azoka itxita egon da aste askoan, eta bueltatzeko gogoa geneukan. Bezeroengan berriro merkatu plazara joateko gogoa igarri genuen.

Hasieran egoerara egokitzea kostatu zitzaigun, segurtasun neurriengaitik eta antzerako kontuengaitik... Baina apurka neurria hartu genion. **Beraz, gustura zaudete herriarren erantzunagaz.**

Jende asko joan zela esango nuke. Gu ez ginen oso kontziente, barruan geundelako eta barruko jende kopurua kontrolatuta zegoelako, baina denek zioten ilara handiak zeudela kanpoan eta jende asko zegoela barrura sartzeko zain. Alde horretatik, oso pozik gaude.

Ederra izan zen eta salmentak oso onak izan ziren.

**Nortzuek egin dute posible azoka berriro zabaltzea?**

Momentu gogorak bizi ditugula ez dago zalantzan jartzetik, eta udalak merkatua ixtea erabaki zuen. Harrezkero, aste batzuk joan dira eta udalaren partetik aldaketa bat egon da. Beraz, alde horretatik eskerak ematen dizkiogu. Nekazarion partetik ere eskaera zabala egon da azoka zabaltzeko. Azkenik, kontsumitzaileei ere gure esker ona eman gura diegu. Durangon gure produktuak estimatzen dituen jende askok azoka zabaltzeko eskatu eta gure eskariagaz bat egin du. Orokorrean, esker oneko gaude normaltasunera bueltatzera lagundu diguten eragile guztiakin.

**Azoka berriro zabaltzeko eskatzen zuten sinadura bilketa bat ere martxan ipini zenuten.**

Sinadura bilketa martxan ipini aurretik, ikusten ez den lan bat egin da. Udalgaz une batean ere ez da hartu-eman eten. Hasieran beste alternatiba batzuk proposatu zituzten, baina, gure ustez, ez ziren baliagarriak. Durangoko merkatu plaza berriro zabaltzeak baldin-

tzak betetzen zituen. Horixe izan da eskatu duguna eta, zorionez, aurrera irten duena. Uste dut jendeak, gehiengo batek, horixe gura zuela. Azkenean, modu batera edo bestera, beste bide batzuetatik ere lortzen da kontsumitzaileengana heltzea, baina ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko hartu-eman naturala merkatu plazetakoa da, eta bide hori berreskuratzea gauza ederra izan da denontzat.

“**Kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko hartu-eman naturala merkatu plazetakoa da**”

**Ohiko kontsumitzaileak joan ziren bakarrik azokara ala jende berria ere bai?**

Jende asko ibili zen eta batzuk berriak ziren, dudarik barik. Berba asko egin izan da gai honen inguruan eta, beharbada, horrek erakarriko zuen jende berria. Pena da udaberria ez dela sasoirik onena barazkie-

tarako. Baserrian lan handia dugu, udako produktuak oraintxe eriten edo landatzen direlako, baina ez da sasoirik aproposena uzta batzerako orduan. Sasoiari sasoiak eskaintzeak horixe du, batzuetan jenero gehiago dago beste batzuetan baino. Baina hori merkatu plazaren enkantuetariko bat da.

**Merkatu plazak gizarte eredu baten isla dira?**

Bai. Zer jaten dugu? Galdera hori funtsezko elementua da gure bizitzan, eta jende askoren ardura. Elkadura gai zentrala dela uste dugu, egunero jaten dugulako. Osasun kontua ere bada, ahora eramaten dugunak eragina duelako gure osasunean. Esku askotatik pasatu den produktua ez izateak eta baserriarrei zuzenean erosteak berme bat ematen duela uste dut. Horregaitik, aukera hori galdu dutenean, herriarrek gugaz hartu-emanetan ipini dira eta berriro zabaldu denean aprobetxatzen ahalegindu dira. Baserriarrek bizirik gura baditugu, merkatu plazek bizirik egon behar dute. Horren alde borrokatuko gara. Kate hori etetea hondamena litzateke, bai ekonomikoki eta baita beste ikuspuntu batzuetatik ere.

CERAMICAS  
**MACOBER**

ZERAMIKA ETA GRESA  
DEKORAZIOA ETA APAINKETA  
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m<sup>2</sup> BILTEGI - 800 m<sup>2</sup> ERAKUSKETA *Etan eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 [www.macober.com](http://www.macober.com)

Saltsan


MAKALLAU  
Saltsan

[saltsan.com](http://saltsan.com)

Egoera berezi honetan  
**MAKALLAU SALTSAN KATERIN**  
zabalik dago!

Enkarguak egiteko edo informaziorako, **telefonoz** edo **whatsapp** bidez gugaz kontaktuan jarri:

 688 773 205 / 688 734 329

 #etorritadastau #unezailetanerezureondoan

# “Naturan lortutako orekari eusten ahalegindu behar dugu krisialdiaren ostean ere”

Konfinamendu sasoiaren, kutsadura maila asko jaitsi da herri zein hiri handietan. Kontsumoaren jaitsierak landaredia eta fauna herrietara hurbiltzea ekarri du. Miren Onaindia EHUko irakasleak egoeraren kausak eta ondorioak aztertu ditu



**Miren Onaindia Olalde**  
EHUko ekologia irakaslea  
Santurtzi

## INGURUMENA • IGOR GALARZA

**Konfinamenduak ez du dena ondorio txar. Munduko biztanleriaren zati handi batek hilabete baino gehiago darama etxetik irten barik. Horrek arnasa eman dio, esaterako, Lurrari. Miren Onaindia Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak konfinamenduak hainbat sektoretan eragindako kontsumo jaitsierak eta horien ondorioak aztertu ditu.**

### Zer egin dugu, edo zer ez dugu egin?

Argi dago kutsadura mugatu egin dela ekintza industrial, ekoizpena, garraioa eta abar asko murriztu direlako koronabirusak eragindako konfinamendu egoeragaitik. Murrizketa hori, batez ere, kutsadura handia dagoen tokietan gertatu da: Txinan, Indian, Europako hiri handietan... Orain aire garbiagoa dugu eta geroago eta animalia basati gehiago ikusten gabilta gure herrietan. Kutsadura murriztu ahala, natura zabaldu egin da eta

atmosfera eta ura garbiagoak izatera, animaliak “pozik” daude.

### Landaredia eta fauna hedatu egin dira egunotan.

Kontrako norabidea duen ikuspuntua interesgarriagoa iruditzen zait. Hau da, normalean zer egiten dugun naturan, itsasoetan eta atmosferetan, horiek krisialdi batek garbitu eta zabaldu behar izateko. Ikerlariak natura kudeatzen dugun moduagaz lotzen dute bizi dugun krisialdi mota. Basoen ustiapena eta abeltzaintza intentsibo artifiziala, adibidez, lotuta daude krisialdiagaz. Garrantzitsua da ikustea gaixotasun krisialdien eta naturaren kudeaketaren arteko erlazioa.

### Zelan nabaritu daiteke Euskal Herrian kutsadura murrizketa?

Itsasoan argi ikusten da aldea. Izurdeak itsasotik kostaldera zabaldu dira, eta Bilboko portuan balea txiki bat ere agertu da. Naturan lortutako orekari eusten ahalegindu behar dugu krisialdiaren ostean

ere, eta ekoizpena beste modu batera egiten.

### Etxean gehiago aurreratu genezake?

Etxeko energia handitu egin da apur bat. Logikoa da, bakoitza bere etxean dagoelako. Baina etxe barruan egonda, konturatu gara materialak eta energia aurreratu behar ditugula. Agian, lehen, gehiegi kontsumitzen genuen, konturatu barik. Orain, oster, ikusita baliabideak lotzea zailagoa dela, jendea beste erabilera mota batera ohitzea itxaroten dut.

### Ikasiko dugu lezioa? Ala lehenengo moduan kontsumitzen jarraituko dugu?

Jendeak hobeto ulertuko du beste neurri batean kontsumitu behar dituela baliabideak. Ikerketa askok diote mikroorganismoen hedapenak, birusenak kasu, lotura handia dutela basoen desagerpenagaz edo biodibertsitatearen galeragaz. Hemendik aurrera, naturaren kudeaketan arreta gehiago ipini beharko dugu. Alde horretatik, baikorra naiz, aldatuko dugu ikuspuntua.

### Zeintzuk dira adituek aipatu dituzuen kezka edo iritziak?

Artikuluak eta ikerketak partekatzen ditugu, eta, gutxi gorabehera, aipatu dudaren ildokoa da denon iritzia. Naturari eustea luxuzko kontua da. Ea hemendik aurrera jendeak ekologiaren kudeaketa kontuan hartzen duen.

# Etxealditik EUSKARALDIRA

Ohitura aldaketa etxetik hasten da

@euskaraldia

@belarripest / @ahobizi

[www.euskaraldia.eus/etxealdia](http://www.euskaraldia.eus/etxealdia)

# Domekatik aurrera umek ordubetean paseatzera irten dezakete kilometro bateko inguruan eta nagusi batek lagunduta

Espainiako gobernuak azaldu duenez, 14 urtetik beherako umek 9:00etatik 21:00etara irten dezakete, eta jostailuak eraman ditzakete

## UMEAK • EKAITZ HERRERA

Domekan ailegatuko da ume eta familia askok hainbeste denboran itxarondako ueña. Espainiako gobernuak umeen konfinamendua apur bat arintzea erabaki du, eta domekatik aurrera kalera irten dezakete haizea hartu eta zertxobait paseatzera. Pablo Iglesias Espainiako gobernuko presidenteordeak jakinarazi duenez, gehienez hiru umeko taldetan irten dezakete, beharrezko distantzia neurriak hartuta eta nagusi batek lagunduta. Ordubetean baino ezingo dute irten, 9:00etatik 21:00etara, kilometro bateko inguruan asko jota. Umeak ezingo dira jolasparkeetan jolastu, baina, gura izanez gero, etxeko jolasak atera ditzakete, baloia eta patinak esaterako. Landa eremuko haurrak mendi inguruan ibili daitezke.

Gobernuaren erabakia zarparra handien artean etorri da. Izan ere, hasieran oso bestelakoak ziren umeei begirako planak. Gobernuaren hasierako asmoen arabera, umek alarma



Ezkurdiko parkearen ikuspegia konfinamendu egun batean.

egoerak baimendutako baldintzetan bakarrik irtengo zuten kalera, hau da, gurasoei supermerkatu, botikara edo banketxera lagunduta. María Jesús Montero gobernuaren bozeramaileak de-

## Paseoen gehienezko distantziak eta iraupenak arautuko dituela aurreratu du gobernuak

fendatu zuen neurri hura "arintze partzial" bat zela. Erabaki hark, baina, kritika olatua sortu zuen herritarrengan eta oposizio indarretan. Horrela, erabaki hura hartu eta ordu gutxira,

atzeratu egin eta jarrera aldatu zuen Espainiako gobernuak: umeen paseoak baimentzea erabaki zuen. Gobernuak atzeratu egin izanaren arrazoien artean herritarrei "entzuten jakitea" dagoela esan zuen Illa ministroak. Euskal Herriko hainbat herritan umeen konfinamendua arintzeko eskariak eta protestak egiten aritu dira aurreko asteetan, baita Durangaldean ere

## Umeen eguna Durangon

Bestalde, Durangoko Udalak Umeen Eguna antolatu du bariku honetarako. Asteon, Porrotx pailazoaren bideo bat zabaldu dute sarean, eta haren bitartez egin dute deialdia. Udaleko iturriek ANBOTOri jakinarazi diotenez, Irrien Lagunek hainbat mezu grabatuta utzi dituzte umeentzat. Mezu horiek herriko auzo guztietatik zabalduko ditu udalak, udaltzaingoaren patruila-autotan megafonia erabilita. Bestalde, barikuan balkoiak apaintzeko, mozorrotzeko, abesteko, eta dantzatzeko deia egin dute.

## Osasun krisialdia hasi zenetik hona, Durangaldeak daturik baikorrenak erregistratu ditu

Koronabirusagatiko 11 kasu baino ez dira baieztatu astelehen eta eguazten artean

## DATUAK • EKAITZ HERRERA

Osasun Sailak emandako datuen arabera, Durangaldean baieztatutako kasu berriek egonkortzera egin dute. Osasun krisialdia hasi zenetik honako joerarik baikorrena erregistratu da eskualdeko datuetan. Astelehenean zazpi izan ziren agertutako kasu berriak. Eta lau eguaztenean. Baina orain arteko daturik esanguratsuena martitzenean

jakinarazi zuten: egun horretan ez zen kasu bakar bat ere baieztatu Durangaldean.

Datuak Erkidego Autonomoan aztertuta ere, zantzu positiboak antzeman daitezke. Osakidetza 4.041 test egin zituen martitzenean Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Horietariko %6 inguruk baino ez zuen positibo eman. Hala, parametro baxuetan mugitu dira

EAEko kutsatzeen portzentajeak. Domekan %2 inguruk eman zuen positibo; astelehenean %9 inguruk. Osakidetza, bestalde, ospitaleetan bilakaera "positiboa" izaten ari dela nabarmendu du. "Osaten ari diren edo alta hartuta dauden pertsonen kopuruak" ere "gora" egiten jarraitzen duela dio. Eguazteneko datuen arabera, Autonomia Erkidegoan 7.277 lagun osatu dira.



**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2020ko apirilaren 24a  
18. urtea - 804. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

# Osasun gida

anboto

 **Ginekologia**  
PSE: 93/18

**mam** ginekologia zentroa

 Mikeldi 13, 48200 - DURANGO  
**T 946 05 53 04**  
info@mamginekologiadurango.com  
www.mamginekologiadurango.com

**HITZORDUA ESKATU**  
**674 322 360**

 **Fisioterapia**  
PSE: 119/13

## Zainduz

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**  
Ane Legorburu Munitxa

**ITXITA BESTE ABISU  
BAT EMAN ARTE**

Trañabarren 13, 4. blokea  
behea eskuma MATIENA-ABADIÑO  
**944 657 132 - 686 906 374**

 **Fisioterapia**  
PSE: 57/16



pablo zubizarreta  
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D  
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com  
**946 550 049 - 695 784 963**

 **Optometria**  
PSE: 162/13

Naia Zabala Azumendi  
11587 kol. zk.



keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99  
**www.keinuoptometriazentroa.com**

 **Podologia**  
PSE: 148/13

**PAUSOZ PAUSO**  
Podologia klinika

Goiatz Murua  
kol. zbk. 147  
Ainhoa Elorza  
kol. zbk. 238  
Nerea Rodriguez  
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

**Telefona: 946203630**  
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**  
PSE: 145/13



clínica dental hartz klinika  
b. unamunzaga e. etxebarria

Azken asteetako moduan, larrialdietan artatzen jarraitzen dugu, baina eguneroko pazienteak ere lehenbailehen artatzen hastea espero dugu, osasun agintarien baimena jaso bezain laster.

Hitzordua, soilik, telefonoz hartuko ditugu 717 19 44 54

 **Odontologia**  
PSE: 112/13



**J.L. URRETA ZABALO**  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
IMQ, PADI (umeen hortz programa)  
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.  
48200 DURANGO  
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**  
PSE: 16/09



www.medicinaesteticaDurango.com

**Laser berria:**  
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

**Txatxiena, 6**  
48200 - DURANGO  
**Tel.: 946 810 387**

 **Psikologia**  
PSE: 62/11



**JON ARRUABARRENA**  
PSIKOLOGO KLINIKOA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK


**Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO**  
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz  
**Tel.: 946 033 246 - 629 245 728**

 **Pedagogia**  
PSE: 63/63

**UGATZ**

**UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA**  
Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea  
DURANGO  
ugatz@hotmail.es  
**944 668 370 - 615 782 090**



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**

# "Gizon diskretua izan da beti, kamera eta fokuen aurrean gutxi agertzen denetarikoa. Gurago izaten zuen berak eduki kamera eskuan"

Durangoko Jose Mari Uriarte Astarloa irakaslea eta Gerediaga Elkarteko kidea astelehenean hil zen, 64 urte zituela

**DURANGO • JONE GUENETXEA**

Jose Mari Uriarte Gerediaga Elkarteko "historikoetariko bat" zen. Argazki zaharrak topatu eta haien atzean zegoen istorioa aztertzea zen bere zaletasuna. Ogibidez irakaslea zen arren, historialari legez lan sakona egin zuen Astarloa anaien biografia lantzen. Pertsona maitatua izan da Durangoko kulturegintzan, baita Gerediaga Elkartean ere.

**"Gizon diskretua"**

Gerediaga Elkartek Uriarteren izaera gogoratu du: "Gizon diskretua izan da beti, kamera eta fokuen aurrean gutxi agertzen denetarikoa. Gurago izaten zuen berak eduki kamera eskuan. Gerediaga Elkartean ez ezik, Durangaldean aurrera atera diren ekimen ugartan ibili da sustatzaile edo laguntzaile, eta gehienetan itzalpean, berak halan bilatuta". Gainera, durangarraren hiru lan nabarmendu ditu Gerediaga. Pablo Pedro Astarloari

buruz argitaratutako biografia, eta argazkigintzari buruzko *Mimuteros: kale-argazkilariak* eta *Argazkigintza Durangon XIX.mendean*.

**Ibaizabal aldizkarian**

80ko hamarkadan, Ibaizabal aldizkariaren sortzaileetariko bat izan zen. "Durangaldeko informazioa eta bakoitzaren interesa zabaltzeko sortu genuen", adierazi zuen Uriartek berak *Durango 80* (Unai Iturriaga eta Bideografik ekoiztetxea) dokumentalean. Aldizkari horretan Jose Julian Bakedanok eta Joseba Sarrionandiak ere parte hartu zuten, besteak beste.

Jon Irazabalegaz makina bat lan egin zuen Uriartek. Honela gogoratu du Irazabalek: "80ko hamarkadan, herrigintzak Gerediaga elkartera eraman zuen. Gerediagagaz 40 urtean izan duen konpromisoa ikusita, harro esan dezakegu Josemari Gerediaga Elkarteko soldata gabeko liberatoa izan dugula. Kultur ondarearen babesa, eskualdeko historia



Jose Mari Uriarte Astarloa.

**"Ekimen ugartan ibili da sustatzaile, gehienetan itzalpean, berak halan bilatuta"**

ikerketeta eta zabalkuntza, eta argazki zaharren berreskurapena izan dira bere lan esparru nagusiak, baina ez bakarrik. Edozertarako prest zegoen mutila genuen Josemari".

Txelu Angoitia Gerediagako argazkilariak Astola aldizkarian lan

egin zuen Uriartegaz. "Plazera izan da Astolan beragaz lan egitea. Langile fina zen eta beti prest zegoen. Baina, gauza guztien gainetik, pertsona ona zela nabarmenduko nuke. Hutsunea uzten duten horietariko", azaldu du Angoitia.

## Segurtasun neurriak hartuta, astelehenetik berriro zabalik daude Iturburuko ortu ludikoak

Iurretako Udalak hainbat gune itxi zituen COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz; tartean, Iturburuko ortuak



Iturburuko ortu ludikoak.

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Astelehenean berriro zabaldu zituzten Iturburuko ortu ludikoak. Astelehenetik barikura egongo dira zabalik, eta Osasun Agintari-

tzak ipinitako neurriak errespetatu beharko dira. Besteak beste, "Behar-beharrezko" denboran baino ezingo da egon bertan: bai ibilbidean, baita baratzean ber-

tan ere. Iurretako Udalak beste neurri batzuk ere jakinarazi ditu: baimenduta dago produktuak batzea, mantentze-lanak egitea lurra erein eta landatzea prestatzeko, eta

landatzea bera. COVID-19 birusak eragindako osasun krisiaren hari- ra, Iurretako Udalak hainbat gune publiko itxi zituen; tartean, ortu ludikoak alarma egoeraren lehe-

nengo aste bietan, Osasun Sailak horien erabilera debekatu ez arren.

EH Bilduk egin zuen ortu ludikoak zabaltzeko eskaera, baratzek autokontsumorako duten "berebiziko garrantzia" nabarmenduz. Horrela azpimarratu du alderdi subiranistak ohar batean. Konfinamenduaren bigarren hamabostaldia hasita, Jaurlaritzak ortuko lana baimendu zuen, "oinarrian lan profesionala bazegoen". Orain, autokontsumorako ere baimendu dute ortuko lana. Erabiltzaileak informatu ez izana ere kritikatu du EH Bilduk.

**Eusko Jaurlaritzak autokontsumorako ere baimendu du ortuko lana**

**"Entretanimenduaz harago"**

Liher Aiertzaguen EH Bilduko zinegotziaren berbetan, ortu ludikoak ez dira entretenimendurako gune hutsa. "Sasoiko, kalitatezko eta bertako produktu freskoak lortzeko guneak ere badira. Ezin da ukatu, gainera, eguneroko baratzkiak eskuratzeko, seguruagoa dela ortura joatea supermerkatuara joatea baino, bai bezeroentzat, bai langileentzat", gaineratu du Aiertzaguenak.

# Traña-Matienako 23 bat herritarrek San Prudentzio jaiak etxean ospatzeko proposamena egin dute

Apirilaren 28aren bueltan ospatzen dituzte jaiak Traña-Matienan, baina koronabirusaren krisiaren eraginez jai-giroa kaletik etxera eramatea erabaki dute

## JAIK • EKAITZ HERRERA

Jaiak kalean egiteko gogoak itxaron egin beharko du. Hori bai, inork ere ez du esan jaiak etxean ezin direnik ospatu. Eta Traña-Matienako etxeetan, ospatu, ospatuko dituzte. Abadiñoko Udalak jaietarako egitaraua osatzeko ideia bilketa bat hasi zuen joan zen astean, eta horrek bere emaitza izan du. Mikel Garaizabal alkatearen esanetan, 23 bat auzotarrek euren proposamenak bidali dizkiote udalari. Edizio hau ixterako, udalak zarratu barik eta publiko egin barik zuen egitaraua, baina Garaizabalek azaldu du denarik dagoela jasotako proposamenen artean: "Donien Atxa jasotzen den egunean txupinazoa egitea, Paella Eguna egitea, balkoieta moztortzea edo edadetuenei txalo zaparrada eskaintzea dira proposamenetarikoz batzuk".

Abadiñoko Udalak sortutako ideia bilketatik aparte, badira jaiak bere kabuz antolatzen hasi direnak. Eguaztenerako, adibidez, auzotar batzuek inprobisatutako egitarau



lazo Mozorro Eguneko irudi bat.

bat zegoen zintzilikatuta Traña-Matienako hainbat etxebizitza ataritan. Bistan denez, udalaren jai egitaraua izan edo auzotarrek inprobisatutako festa izan, ez da zarraparra eta kolorerik faltako Traña-Matienan. Horiek amaituta-

koan, ikusi egin beharko da ea zer gertatzen den San Trokaz jaiekin. Zelaietako jaiak maiatzaren erdialdean ospatu ohi dira eta ikusteko dago ea sanprudentzioekin erabiltako formula bera aplikatzen ote duen udalak.

## Oromiñon ere bai

Iurretako Oromiño auzoan ere jaiak ospatzea zuten aurreikusita asteburu honetan, eta han ere, ezinbestean, etxeko formatuan ospatu beharko dituzte. Buztarri kultur elkarteko eta jai batzordeko ki-

deek jakinarazi dutenez, egitasmo batzuk aurrera eramango dituzte. Horien artean daude tortilla txapelketa etxetik egitea, topa egiten ageri diren bideoak partekatzea, koplak egin eta musikatzea, eta argazkiak batu eta horiekin muntaketa bat egitea.

## Txupinazoa eta Paella Eguna egitea, eta balkoieta moztortzea dira udalak jasotako proposamenetako batzuk

Abadiñon zein Oromiñon gertatzen dabilena ospakizun guztien erakusgarri da. Euskal Herriko hainbat jai dira horren ispilu. Esaterako, Gasteizko eta Arabako San Prudentzio jaiak ere bertan behera gelditu dira. Iruñeko San Fermin jaiekin gauza bera gertatu da. Baita EHZ festibalagaz ere. Baionako bestekin zer egin, asteburuan erabakiko dute.

BATXILERGOA 20-21

# INFORMAZAITEZ GURE ATE IREKI BIRTUALEAN!

Bilera personalizatuak

Online saioa



Bilera pertsonalizatuak apirilaren 27tik 30era

Online saioa apirilaren 29an, 17:00etan

Izena eman hemen:

<https://informazaitez.eus/batxilergoa>

*jsu*  
Jesuitak

Durango

Biharko ametsak, gaurko erronkak



94 681 00 50

sanjose@durangojesuitak.org

www.informazaitez.eus

# Etxeko hizkuntza ohituretan eragiteko asmoz, Etxealditik Euskaraldira dinamika martxan ipini dute

Itxialdian gaudela aprobetxatuta, eguneko momentu batez hizkuntza ohiturak aldatzen ahalegintzeko eta euskaraz egiteko gonbidapena egin dute Etxealditik Euskaraldira ekimeneko kideek; egitasmoa maiatzaren 3an amaituko da



2018an Durangon ateratako talde argazkia.

## DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Konfinamenduan gaudela aprobetxatuta, Etxealditik Euskaraldira dinamika martxan ipini dute. Euskal Herri barruko ekimena da. "Itxialdian gaudela kontuan hartuta, eta jakinda azaroan Euskaraldia etorriko dela, motorrak berotzeko ekimena da, baita etxealdi honetan hizkuntza ohitura batzuk aldatzekoa ere", adierazi du Markel Sanchez Durangoko Euskaraldiko batzordeko kideak. Egitasmoa apirilaren 21ean hasi zen eta maiatzaren 3ra bitarteko egunetan garatuko da. Dinamika hau faseka egingo da eta lehenengo egunak gogoetarako izan dira. Bakoitzak etxeokoen eta ingurukoekin zein hizkuntzatan berba egiten duen pentsatzeko tartea

izan du. Gaurtik apirilaren 30era, ostera, proposamenen fasea izango da. Euskararen erabilera aragotzeko, egun bakoitzean proposamen bat egingo zaie herritarrei. "Esaterako, egun batean afaria euskaraz egitea proposatuko zaie; beste egun batean, kuadrillakoe-kin sarean egiten duten poteoa euskaraz egitea; beste batean, dendarari euskaraz egitea; eta abar", azaldu du Sanchezek. Proposamenok Euskaraldiko sare sozialetan zabalduko dituzte.

Maiatzaren 3an amaituko da Etxealditik Euskaraldira ekimena. Honi guzti honi amaiera emateko, sorkuntzagaz loturiko zerbait plazaratzea eskatuko zaie herritarrei, aurreko egunetan prestatu dutena.

Bestalde, Durangaldeko Euskaraldiko batzordeek egitasmoan parte hartu dezaten animatu dituzte herritarrik, eta egunero momentu bat hartu dezaten euskaraz gehiago egiteko. Horrez gainera, etxeko leiho eta balkoietan koloretako puntuak ipintzeko deia egin dute, kanpainari ikusgarritasuna emateko.

# Konfinamendua indarrean dagoen arren, Abiadura Handiko Trenaren lanek aurrera jarraitzen dute Atxondon

Bestalde, ADIFek errepidean margotutako marra horiak polemika iturri izan dira udalean. Dagoeneko konpondu dute arazoa, udalak eskatuta

## ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Apirilaren 14an amaitu zen funtsezkoak ez diren jardueren geldialdia, eta, horregaz batera, hainbat langile lanera bueltatu ziren, tartean Atxondon AHTko obretan beharrean dabilzanak. Hainbat herritar "haserre" daude lanekin eta kamioien joan-etorriekin, eta azken egunotan hainbat ekintza egin dituzte egoera hori salatzeko. Udaletxera ere joan dira azalpenak eskatzera. "Gure ustez, udalak egoera hau baldintzatu eta gelditu dezake", adierazi dute AHTrik Ez plataformako kideek.

Horrez gainera, bertan dabilzan langileek ez dituztela segurta-

sun neurriak betetzen salatu dute. "Langileek ez dituzte segurtasun tartea mantentzen, eta ez dituzte ez maskarak ez eskularruak erabiltzen", kritikatu dute.


### Atxondoko AHTrik Ez plataformako hainbat kide udaletxera joan dira azalpenak eskatzera

### Marrak polemika iturri

Bestalde, ADIFeko langileek errepidean margotutako marra horiak polemika iturri izan dira. "Lana ez dago ondo eginda. Errepideko ma-

rrak zuriz egon behar dira, horiz maisu-etxearen ingurukoak bakarrik. Beraz, hori lehenbailehen konpontzeko eskatu diogu ADIFI", jakinarazi zuen udalak joan zen barikuan. Horrez gainera, udalak azaldu zuen lanean jarraituko duela ADIFek proiektuaren baldintzak betetzeko eta lanek ahalik eta eragin gutxien izateko.

EH Bildu kritikiko agertu da EAJren jarreragaz: "Arazoa ez da noraino margotu dituzten marrak. Baina badirudi horixe dela udalaren kezka bakarra". Horrez gainera, "hainbat bider" eskatu duten arren informazioa udalean, "ezer ere" ez dietela esaten salatu dute.



Kamioiak herri erditik igarotzen dira maisu-etxe ondora joateko.

**Haurrentzako ipuin kontaketa**  
**Apirilak 27**  
**Ameli & Xirrikituaren jostunek**  
17:30 Txorien kontakizunak (3-6 urte)  
18:15 Aspertuta nago! (7 urtetik gora)

**Iurreta**  
Euskarazko Udalak  
MARRAK BILBAO

<https://www.youtube.com/channel/UCUit4546805uxgau9rq8N-A>

**Helduen ipuin kontalaria**  
Apirilak 24 19:00etan

**VIRGINIA IMAZ**  
"MAS ALLA DEL HORIZONTE"

ZUZENEAN /

<https://www.pscp.tv/lurretaBiblioteka>

## Seguros Bilbao

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
**Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577  
[jrueda@segurosbilbao.com](mailto:jrueda@segurosbilbao.com)





## “Konpromiso bat hartu nuen eta konfinamenduan egon arren Ekuadorren geldituko naiz”

Iraide Donaire Ekuadorreko Amazonian dago, misiolari laiko legez. Martxoaren 14tik dago konfinamenduan

**EKUADOR • JONE GUENETXEA**

**Iraide Donaire Hidalgo gazte durangarra (Durango, 1993) Ekuadorren dago, Orellana probintzian. Urte birako konpromisoa hartu du, eta ez du etxera bueltatzeko asmorik.**

**Zerk eraman zaitu Ekuadorrera?**

2014-2015ean, Elizbarrutiko Misioetatik Ipar-Hego ikastaroa egin nuen. Ikasitako gauza asko desikatzen eta mundua zelan antolatuta dagoen ikasi genuen. Ekuadorreko

mendi aldean esperientzia izan nuen. Prozesu bat egin eta gero, 2019an Ekuadorrera etortzea erabaki nuen, luzerako, misiolari legez. Dagoeneko bederatziti hilabete daramatzat hemen.

**Zein proiektutan parte hartzen zabilta?**

Hemen Bikariato Apostolikoa dago, eta hainbat kongregazio eta pertsona laiko daude. Nik gizarte pastoralean dihardut, Caritaseguz elkarlanean. Etxe batera joaten

naiz, Casa Paula deitzen dena. Han, tratu txarrak jasan dituzten emakumeak, euren umeak eta gazte jendea daude. Mugimenduzko ekintzak egiten ditugu, tentsioa askatzeko. Ospitaleetara eta etxetara ere joaten naiz gaixoak bisitatzen. Bestalde, ingurumenaren arloan asko borrokatzen ari gara.

“**Hiru petrolio hodi apurtu ziren eta Coca eta Napo ibaiak guztiz kutsatu dira**”

**Ingurumenaren aldetik, zeintzuk dira komunitate horretako ardura nagusiak?**

Hemen petrolio enpresak daude eta *metxero* deitzen diren tximiniak dituzte. Petrolio ateratzean gas bat sortzen da eta hori erre egiten dute. Oso kutsakorra da eta minbizia sortzen du. Horregaitik borrokatzen gara *metxero* horien kontra. Bestalde, zabortegei bat dago eta ez dute hondakinen tratamendu

teknikorik egiten. Ura kutsatzen du eta animaliak hil egiten dira. Helburua, batez ere, herriagaz bat egitea da eta herritarren borroekin bat egitea.

**Koronabirus mehatxuari petrolio enpresen jarduna gehitu behar zaio.**

Apirilaren 7an lur-jausi bat gertatu zen. Hiru petrolio hodi apurtu ziren eta Coca eta Napo ibaiak guztiz kutsatu dira. Petrolio hau Perura heldu da. 2013an ere antzeko zerbait gertatu zen. Sasoi hartan ondo garbitu ez zenez, erreka igo eta jaisten denean zikinkeria hori erreka izkintetan gelditzen da. Lur-jausiak eragin handia izan du komunitatean ere, ezin dutelako ur hori kontsumitu. Eta gobernuak eta petrolio enpresek ezkutatu egiten dute arazoa. Eliza egoera hau salatzen dabil, batez ere eskubideak eta bizitza duina exijitzeko.

**Bederatzi hile daramatzazu Ekuadorren. Hor jarraitzeko asmoa duzu?**

Koronabirusa dela-eta, jende asko bere herrialdera bueltatzen dabil. Ingurukoek ea ez naizen etxera bueltatuko komentatu izan didate, baina hemen jarraitzea erabaki dut. Bueltatzeari ez diot zentzurik

ikusten. Urte birako etorri naiz eta orain haxe da nire etxea. Durango familia daukat eta eurekin hartu-emanetan nago. Baina konpromiso bat hartu nuen zerbitzu bat emateko, eta Ekuadorren geldituko naiz. Hemen ere konfinatuta gaude, martxoaren 14tik. Etxetik oso gutxitan irten dut. Zaila da pastorala etxetik egin eta jendeagaz ez egotea, baina, beharrian handia dagoenez, ahalegina egiten dugu etxetik janari-laguntzak koordinatzen, jendeak janari hori eskuratu dezan.

**Osasun publikoaren ikuspuntutik, koronabirusak zein eragin izan du Ekuadorren eta, bereziki, zu zauden inguruan?**

Fokua Guayaquilen ipini dute, batez ere. Hala ere, ni nagoen inguruan baliabide falta handia dago. Esate baterako, ospitalean ezin da koronabirus probarik egin. Analiak Quitora edo Guayaquilera bidaltzen dituzte. Hamabost egunera bidaltzen dute emaitza. Ni Orellana probintzian nago, hemen ez dagoela kasu asko diote, baina ez dakit. Petrolio enpresak lanean dabilenez, egon daitezke kasuak. Proben zain gaude.

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com

# Salmenta telematikoa

**ESKAERAK**

- e-postaz: info@hitzliburudenda.com
- WhatsApp-ez: 686 214 964
- Telefonoz: 94 681 0776 (8:00etatik 14:00etara)

**ORDAINKETA**

- Banku-transferentzia bidez.
- BIZUM bidez.

Bidalketa gastuak 4,90 € izango dira.

\* fardelaren tamainaren eta pisuaren arabera aldaketa izan dezake

A. Urreta podólogo

R.P.S. 214/06

**Dinara Urreta Jainaga**

**OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ**

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

GAIZKA  
OLABARRI

Hitz liburu- denda

“**Uste dut jendea konturatu dela komertzio txikiak duen balioaz**”

**DURANGO • JONE GUENETXEA**  
**Zelan bizi du konfinamendua Durangoko Alde Zaharrean liburu-denda bat duen autonomo batek?**

Ba, etxean. Denda dekretuz itxita daukagu, eta debekatuta dugu zabaltzea. Denda publikoari zabaltu ezin diogun arren, autonomo baimena dugu gure lanpostura joateko. Ni batzuetan joaten naiz bertara, pertsiana bajatuta paper kontuak-eta egitera.

**Salmenta telematikoa ipini duzu martxan. Zer da hori?**

Komertzio txiki batek hamabost egunean, hilabetean, iraun dezake itxita, justu-justu, baina iraun dezake. Baina iku-

sita panorama hau luze-rako doala, zeozer egitea erabaki nuen. Orduan, hainbat jenderen aholkuak entzunda salmenta telematikoa egitea erabaki nuen. Jendeak eskariak egiten dizkit, eta guk, mezularitza zerbitzu baten bitartez, eskariak etxera bidaltzen dizkiegu.

**Zerbait erosi gura duen herritarra zelan ipini daiteke zugaz hartu-emanetan?**

Hiru modu ditugu eskariak hartzeko. [info@hitz-liburudenda.com](mailto:info@hitz-liburudenda.com) helbide elektronikora edo 686 214 964 whatsapp zenbakira idatzita zein 946 810 776 telefono zenbakira deituta jasotzen ditugu herritarren eskariak.

IZORNE  
LUENGO

Akebaso jatetxea

“**Ezkontzen denboraldia hastekoak ginenean etorri da etenaldia**”

**ATXONDO • J.G.**  
**Martxoaren 15etik itxita da go Akebaso jatetxea. Sasoi honetan ezkontzen denboraldia hasten da. Zein momentutan harrapatu zaituzte?**

Gure denboraldia martxoan hasi eta azaroan amaitzen da. Martxoaren 14an ezkontza bat geneukan eta aste horretan ezkondu behar zen bikoteak telefonoz deitu zidan, eta ea zer egingo zuten galdetu zidaten. Ezkontza ospatu ahalko zela eta aurrera egiteko esan nien. Baina egunean, arratsaldean, neskak negar batean deitu zidan. Ezkontza bertan behera utzi beharko zutela esan zidan, hainbat gonbidatuk esan zielako ez zirela joango. Euren era-

bakia errespetatzen nuela esan nien. Osteko ezkontza guztiak geratu dira bertan behera, bata bestearen atzean. Uztaileko ezkontzak ere datorren urtera atzeratzen gabilta.

**Momentu honetan, zein da ostalaritzaren egoera?**

Hasieran, ez nuen ezer sinisten, ez nuen ezer ulertzen. Baina guretat kolpe galanta izan da. Oraitxe hasi behar genuen lanik gogorrenagaz, eta ezin dugu ezer ere egin. Egunak pasatzen dira ezer ere egin barik.

**Mezu positibo bategaz amaituko dugu?**

Gauza txarren alde positiboak ikusi behar dira, eta seguru egoera honetatik asko ikasiko dugula.

ANE  
FERNANDEZ DE RETANA

Hampton osagarriak

“**Etenaldia luzatzen bada, zabaltzen dugunerako beharpenak hasiko dira**”

**DURANGO • J.D.**  
**Zelan bizi duzue Hamptoneko kideok konfinamendua sasoi hau?**

Bada, aurrera goaz. Telebista ikusten dugu, informazioa jaso eta jakiteko zer dagoen gure alde eta zer ez. Horrez gainera, aurrera egiteko, gure aukerak zeintzuk diren baloratzen gabilta. Gainera, hau pasatu aurretik ere, interneteko salmetekin ez zen erraza asko saltzea. Orain, egoera honegaz, dendan bertan ere ezin bagara egon, lan horiek aurrera ateratzea askoz ere gaxtagoa da.

**Whatsapez erosteko aukera eskaintzen hasi zarete.**

Bai, badakigu bataio, jaunartze eta ezkontzeta-rako ez dugula askorik salduko, gehienak ez dira egingo eta. Orduan, hor egiten genituen salmeta guztiak desagertu egin dira. Gainera, etenaldi hau luzatzen bada, zabaltzen dugunerako beharpenak hasiko dira, eta zerbait egin behar genuen. Plataforma handiek, esaterako, beharpenak hasi baino hamabost egun lehenago deskontuak egiten hasten dira, baina guk ordura arte ezer ez badugu saldu, zelan egingo dugu aurrera? Kalera irteten garenerako jendeak deskontuak gurako ditu. Oso egoera zaila da guretzat.

OIER  
OARBEASKOA

Mikeldi taberna

“**Aurrera egiteko, garrantzitsua da komertzio txikia gogoan izatea**”

**DURANGO • J.D.**  
**Zelan bizi duzue Durangoko ostalariok egoera hau?**

Arduratuta gaude, ea zer izango den, noiz hasiko garen berriro lanean... Gastu asko ditugu eta diru sarrerarik ez. Guk, esaterako, lokalaren jabeagaz berba egin dugu eta lortu dugu alokairu osoa ez ordaintzea. Hala ere, denok dirutza bat ixten gabilta. **Ostalaritza asko aldatu da Durangon azken urte hauetan. Gauak ere ia desagertu egin dira. Zuek zelan egin diozue aurre egoera horri?**

Gauak asko aldatu dira, bai, eta azken urteotan

asko bajatu da gau-giroa. Urterik urtera geroago eta jende gutxiagok irte ten du gauean, eta beste gauza batzuk egiten ahalegindu gara: kafeak, gosariak, brunch-ak... Horrez gainera, gauetan jai pribatuak ere egin izan ditugu: urtegun eta ezkontzeta-koak, besteak beste. Eta hemendik aurrera gauza gehiago asmatu beharko dugu. Sarritan urduri ipintzen garen arren, denon artean lortuko dugu hau guztia pasatzea. Baina, aurrera egiteko, garrantzitsua izango da denok komertzio txikia gogoan izatea.

SARA  
BERNEDO

Sara arropadenda

“**Elorrioren 14 urte daramatzagu lanean eta bezero fidel asko ditugu**”

**ELORRIO • J.G.**  
**Elorrioren arropa-denda bat daukazu. Zelan bizi duzue konfinamendua egoera hau?**

Larri. Guk martxoaren 12an itxi genuen denda. Hilabete pasatu da eta hor gabilta jaso genuen jenero guztia ordaintzen eta ia zer gertatuko zaigun pentsatzen.

**Aurretik ere mehatxu batzuk izan dituzue, zailtasunak egunerokotasunean, alde batetik low cost moda eta bestetik Internet bidezko salmetak. Zuen kasuan, zein izan da mehatxu handiena?**

Biak dira mehatxuak, baina guretzat, bereziki, *low cost*-a ez da handiena. *Low cost* horrek publiko bat dauka, eta

gu ahalegintzen gara markak-eta saltzen. Lan handia egiten dugu gure jantziak aukeratzeko, kalitatezko jantziak saltzen ahalegintzen gara, batez ere prezio konpetitiboan. Internet bidezko salmetak, ostera, mehatxu handia dira guretzat.

**Baina denda txikiak erosle fidelak izaten dituzue.**

Elorrioren 14 urte daramatzagu lanean eta bezero fidel asko ditugu. Gustatzen zaizkie gure produktuak, dendan dauden gauzak lasai ukitzea, ikustea, etxera eramatea... Gure zerbitzuak oraindino ere balio horiek ditu eta jendea asko gustatzen zaio hori.

MARKEL ONAINDIA  
ETA KOLDO ZARATE

Antonio's taberna

“**Bonuak izandako erantzunagaz oso esker oneko gaude**”

**DURANGO • J.G.**  
**Zelan bizi duzue konfinamendua Antonio's-en?**

**Markel Onaindia:** Hasteko, gure proiektua desberdina dela esan behar dugu, ez gara hortik bizi eta. Horrek, beste ostalariekin alderatuta, ez du hain larria bihurtzen gure egoera. Hala ere, baditugu langileak, eta une honetan eurak eta euren egoera dira gure kezka nagusia. Gainera, martxoaren erditik ez daukagu diru sarre- rarik, eta, beraz, likidezia arazoak izango ditugula aurreikusten dugu.

**Likidezia arazo hori apur bat konpontzeko, ekimen**

**bat martxan ipini duzue. Koldo Zarate:** Gure artean gogoeta egin eta pentsatu genuen agian ingurukoek zertxobait lagundu ahal zigutela aurrera egiteko. Bonuak salgai ipintzea bururatu zitzaigun, eta izandako erantzunagaz oso esker oneko gaude. Jende askok bere inguruan zabaltu du mezua, eta, egia esan, askok egin dute ekarpena. 20 euroko bonua erosten duenak 10 edaritarako txartela eskuratu du behin taberna zabaldutakoan. [Durangozaindu.com](http://Durangozaindu.com) ekime- nean ere parte hartzen ari gara.

# Durangoko komertzio eta tabernek 15.000 euro saldu dituzte bonutan, itxialdia amaitzen denean erabili daitezkeenak

Dendak Bai merkatarik elkartek sustatutako 'www.durangozaindu.com' plataforma digitalak merkatarik eta ostalarientzako likidezia iturri izan gura du



Hilabete pasatu da komertzio txikirik gehienek eta ostalariek jarduna eten zutela.

## DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI

Itxialdiak gogor kolpatu du merkatarik txikia. Koronabirusaren krisiari zelanbait eutsi dioten bakarrenetarikoa dira janari-dendak. Konfinamenduak kontsumo ohituretan ere eragin du, eta etxerik-etxeke banaketa eta gertuko dendetan erosteko joera indartu du. Dendak Bai merkatarik elkartek bikoiztu egin du eguneko etxera-eramate kopurua, eta banaketa orduak gehitu dituzte. Dena dela, komertzio txikiak eta ostalariek egoera zaila bizi dute, itxialdiari aurre egiteko bide berriak zabaldu behar izan dituzte eta herritarrek ondo erantzun dute.

Adibide bat da Durangon sortutako [www.durangozaindu.com](http://www.durangozaindu.com) plataforma. Martxan ipini eta astebetera, 15.000 euro saldu dituzte bonutan (251 bonu). 10, 20 eta 50 euroko bonuak ipini dituzte salgai, konfi-

namendua amaitzean erabili daitezkeenak. Horrela, komertzioek eta ostalariek "une honetan horren beharrezkoa den" likidezia lortuko dute, ataria kudeatzen duen Dendak Bai elkartekoen berbetan. Plataformako gastuei udalak aurre egingo die, eta elkartekoak ez diren beste negozioek ere parte hartu dezakete.

## Durangon, Elorrion eta Abadiñon herriko komertzioa sustatzeko kanpainak egingo dituzte

Hainbat udalek hartutako beste zenbait neurrigaz ere arindu gura dituzte itxialdiak eragindako kalteak. Durangon hiru beherapen kanpaina egingo dituzte aurten ekainetik aurrera (50.000 euro gorde dituzte), eta udalak hitzarmen

berria lotu du merkatarik elkartegaz. %10 igoko du diru-laguntza.

## Elorrion eta Abadiñon

COVID-19aren eraginez sortutako egoera arintzeko, Elorrioko merkatarik, ostalari eta autonomoek ez dute tasarik ordainduko zaborragaitik eta kalea okupatzeagaitik negozioa itxita duten bitartean. Gainera, udalak 40.000 euro ipiniko dituzte laguntzeko. Eta itxialdia amaitutakoan, EME merkatarik elkartegaz batera kanpaina bi egingo dira komertzioak bultzatzeko; 20.000 euro gorde dituzte, iazkoaren bikoitza.

Abadiñoko Udalak uda aurretik egingo du kanpaina (10.000 euro) herrian erostea sustatzeko. "Itxita dauden dendak zabalduko balira", argitu dute. Beste 5.000 euro negozio berrien sorrerarako gorde dituzte.



ALEX PALACIOS ANDRES

Dendak Bai elkarteko presidentea

**"Honek guztiak tokiko komertzioak indartuta irteteko balio izatea espero dut"**

## DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI

Durangaldeko Dendak Bai merkatarik elkartek Durangoko, lurretako eta Abadiñoko 180 bat komertzio batzen ditu. Koronabirusaren krisiaren eraginez, etorkizun zaila aurreikusten dute. Herritarrek, neurri batean, komertzio txikiak duen garrantziak kontzientzia hartu duela uste du Alex Palacios elkarteko presidentek.

**Tokiko komertzioa oso heterogeneoa da. Baina, orokorrean, koronabirusak gogor kolpatu duen sektorea da. Zelan bizi duzue egoera?**

Oso egoera latza da gehienontzat. Alde batetik, ez dugu diru sarrearik, eta gastu finkoei aurre egin behar zaie (argindarra, autonomo kuota, lokalaren alokairua...), 2.000 eurotik 8.000 eurora arteko gastua,

komertzioaren arabera. Likidezia lortzera bideratu da indarra, bestela oso egoera konplikatu dugu aurrean. Bestetik, elikadura-dendak daude. Oso ondo dabilta lanean, beharrezko neurri guztiak hartuta. Ordu asko ematen dituzte lanean, askoz ere egoera zailagoan, maskarak ipinita, distantzia neurriak zainduta... Alde horretatik, libratu diren bakarrak dira. Administrazio guztiak eman diezaguketen laguntza beharrezkoa da. Denak balio du. Soldata eta gastu finkotan, komertzio bakoitzak 3.500etik 4.000 eurora bitarteko galerak ditu.

**Herritarrek komertzio txikira hurbildu direla esango zenuke?**

Bai. Gertu duten komertzio hori gehiago baloratzen dute. Lehen erosketak saltoki handiagotetan egiten zituztenak orain auzoko ha-

ategira, fruta-dendara, arraindegira... joaten dira, askoz gehiago. Herritarrek ardua gehiago dute tokiko komertzioagaz, horrek bizi duen egoeraz jabetuta. Jendea horretaz kontzientziatu da.

**Zeintzuk dira sektorerik kaltetuenak?**

Arropa-dendena kasu berezia da, koronabirusaren krisia heldu zaien uneagaitik: udaberri-uda kanpainaren hasieran. Arropa guztia erositako, saltzeko prest zuten dendetan. Irabazi txikietarako sasoi garrantzitsua galtzen dabilta, eta berriro zabaltzen dutenerako ia beherapen sasoi egongo gara. Prezio borroka itzela egongo da. Ostalaritza ere oso arduratuta dago. Ez dakite noiz eta zelan zabalduko duten, neurri bereziekin zabalduko duten, aforoaren erdiagaz edo gutxiagaz.

**Zelan ikusten duzu etorkizuna? Zer eskatuko zenieke herritarrei?**

Etorkizun hurbila konplikatu ikusten dut. Zailtasunak izango ditugu denok egoera honetatik irteten eta urtea amaitzeko. Dena dela, honek guztiak tokiko komertzioak indartuta irteteko balio izatea espero dut, kontzientzia hartzeko. Bizi dugun egoeran, elikagaigintzan diharduten denda txikiak egiten ari diren ahalegin handia kontuan hartzeko eskatuko nuke, eta gainerako guztiak euren negozioa zabaltzeko egingo duten esfortzua orain arteko zerbitzua ematen jarraitzeko. Gatxa da multinazionalak eta sareko plataformak aurre egitea, baina etenik barik gabiltza horretan lanean, gaurkotzen. Tokiko komertzioa babestea eskatuko nieke herritarrei.

IES Frai Juan de Zumarraga - Durango BHI

- DBH
- GELA EGONKORRA
- BATXILERGOAK
- ARTEAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- ZIENTZIAK
- ZEREGIN IKASKUNTZARAKO GELA
- HEZIKETA ZIKLOAK
- Erdi mailakoa: Landa Ingurune Gorpuz eta Kirol Ekintzen Gidaritza (D eredu)
- Goi mailakoa: Gorpuz eta Kirol Jardueren Animazioa (D eredu)

Institutuan, jakina!

Frai Juan Zumarraga, 23 • DURANGO • Tel.: 94 681 73 25 / 94 681 77 30 • Faxa: 94 681 02 58 • info@durangobhi.net • www.durangobhi.net



# Gremioen gida

anboto

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua  
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

**UNAI GARAY**  
ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

Instalataile baimendua

659 673 790  
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA  
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862  
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208  
ubide@euskalnet.net  
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

**ALDEKOA-OTALORA**  
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA  
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zubiaurre, 8 IURRETA  
946 202 768

Arzubio 10 B Industrialdea, 13-14 pabellioak ABADIÑO  
944 071 791 - 492 852 779

Zurgintza

**ATERPE AROTZAK**  
EGUR ERAIKUNTZAK  
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65  
Ander Maiztegi 655 73 75 51  
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

**JAIObarnizatuak**

Armairu eta era askotariko  
altzairuen lakadura eta  
guztietako zaharberritzeak  
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421  
info@jaiobarnizatuak.com  
www.jaiobarnizatuak.com

**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**



## Botikak

**BARIKUA, 24** · 09:00-09:00

**GAZTELUMENDI J.A.**  
Abasolo 2 - **DURANGO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**ZAPATUA, 25** · 09:00-09:00

**IRIGOIEN** Bixente  
Kapanaga 3 - **IURRETA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

**GAZTELUMENDI J.A.**  
Abasolo 2 - **DURANGO**

**SARRIA** Sasikoa 17, **DURANGO**

**BAZAN DIAZ** Uribarri 5 - **DURANGO**

**DE DIEGO** Intxaurren 22. - **DURANGO**

**CAMPILLO** Montevideo  
etorb. 24 - **DURANGO**

**BALENCIAGA**  
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

**JAIO-ABENDIBAR**  
Errekakale 6. - **ELORRIO**

**EGUREN, ISABEL**  
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki  
Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

**MELERO, ROSA MARI**  
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**DOMEKA, 26** · 09:00-09:00

**SARRIA** Sasikoa 17, **DURANGO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**ASTELEHENA, 27**  
· 09:00-09:00

**UNAMUNZAGA** Muruetatorre  
2C - **DURANGO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**MARTITZENA, 28**  
· 09:00-09:00

**CAMPILLO** Montevideo  
etorb. 24 - **DURANGO**

**RUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**EGUAZTENA, 29**  
09:00-09:00

**GAZTELUMENDI J.A.**  
Abasolo 2 - **DURANGO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**EGUENA, 30**  
· 09:00-09:00

**MUGICA** Andra Maria 9 - **DURANGO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San  
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis  
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

## Zorion Agurrak



Apirilaren 21ak  
hizki larrikoko izenak  
80 urte Mari Karmenek  
egin behar dituenak...  
nahiz urrun egon zure etxeko ta  
familiko gehienak  
hartu itzazu muxu goxo ta  
besarkada beroenak  
zuretako dira denak



Zorionak, **Txaber!** Musu bat  
aitaren eta gainontzeko guztion  
partez. Maite zaitugu, infinito!



Zorionak, **Irati** zure 12. urtegunean,  
egun polita eta alaia izan! Zure aita  
Lander, ama Ana, anaia Endika,  
lehengusuak Luzia eta Eder, aitteitte  
Karlos eta Luis, amama Enkarna eta  
beste senideen partez.



**GOZATU**  
**GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11. **DURANGO**  
Tel.: 946 201 663  
gozaturango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia




Apirilaren 26an Berrizko **Inge**  
Narbaiza Aldekoak 8 urte egiten  
dauz. Etxien sartute egon arren,  
ondo-ondo pasau. Zorionak!



Zorionak, **Antia!** 6 urte, neska haundil!  
Egun polit eta zoriontsu bat opa  
deutsugu Leirek eta bere familiak.  
Disfrutau egune Xabat, amatxo eta  
aitatxokin. Besarkada eta mosu poto-  
lo bat. Asko maite zaitugu!



Zorionak, **Mara!** 2 urte egiten  
dozuz, etxeko danon partez  
mosu handi bat! Laster danok  
batera ospatuko dogu!



Zorionak ta ole, mi hombre! Badakigu  
tope zaudela parrillan, baño espero  
deu txuletan bat lagatzie kuarentena  
geroako, bestela adios... 28. kartutxue  
zelebratzeko ikusiko gea laste, sobre-  
mesa luze baten... edozein herriko  
jaxetan! (Bukaeria nere kontu, tigre!)  
Ez ahaztu, deabruak gara!



Aurtengo urtegun berezia  
desberdin pasauko dugu.  
Zorionak, **Agustin,** familia  
guztiaren partez.



Zorionak eta besarkada handi  
bat konfinamendu sasoi honetan.  
Ahalik eta ondoen pasatu zure urte-  
gune, eta etxean zagozenekin dis-  
frutatu. Gainerakoekin ospatzeko  
gitxiau falta jaku. Besarkada handi  
bat llijorretatik hasi eta Abañoaino.  
Ondo pasau egune, **Izaskun!**

## Eskelak



Eskerrik asko eta  
laster arte Jose Mari

## Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 21° / 12°

DOMEKA 🌧️ 21° / 13°

ASTELEHENA 🌧️ 16° / 11°

MARTITZENA 🌧️ 14° / 11°

EGUAZTENA 🌧️ 13° / 8°

EGUENA 🌧️ 16° / 7°

## #entsaladaerronka



Bastida entsalada  
epelak irabazi du  
entsalada erronka.  
Zorionak!

# Ideiak astindu eskuak arindu

## TXITAK, HABIAN

**OSAGIAK:** Arrautzak, letxuga, lasto itxura duten patata frijituak, mahonesa, azenarioa eta ilarrak.



**DENBORA:** guztira 16 minutu (arrautzak egosteko 10 eta platera prestatzeko beste 6, gutxi gorabehera).



**1.** Arrautzak egosi eta hoztutakoan zuritu. Mokoa eta begiak jartzeko, egin ebaki bat eta bi zulotxo, arrautza egosiei. Zulotxoetan ilar bana sartu, eta erdiko ebakian, azenario zatitxo bat.




**2.** Arrautzak zutik gera daitezen, puska bat moztu azpialdean.



**3.** Plateraren erdian mahonesa menditxo bat edo bi egin eta arrautzak jarri gainean.

**4.** Arrautzak patata frijituez inguratuko ditugu, txitak habian daudela eman dezan.

**5.** Habia ere inguratu egingo dugu, baina letxuga hostoz, eta nahi izanez gero, azenario egosia ere jar daiteke (makilatxo batzuk han-hemenka).





# LAGUNTZA SAREAK DURANGALDEAN BEHARRIZANA DUTENENTZAT



## ABADIÑO

Abadiñoako gazteen boluntario sarea:  
**655 712 433** eta **662 586 190**  
10:00etatik 14:00etara hartuko dituzte eskariak

Boluntario sarean izena emateko:  
**685 709 347**

Abadiñoako Udalaren laguntza sarearen telefono zenbakiak:  
**94 466 94 30** eta **688 679 414**

## ATXONDO

Boluntario aritu gura dutenek izena emateko:  
**608 321 901** eta **685 713 187**

## BERRIZ

Oinarrizko erosketak egiteko zailtasunak dituztenentzako telefono zenbakia: **685 752 311**

**PSIKOLOGIA-LAGUNTZA telefonoz** (10:00 - 12:00 / 17:00 - 19:00)

**636 189 449** (nerabeak, helduak eta adinekoak)  
**645 732 388** (bikotekideak)  
**617 319 714** (haurrak eta adinekoak)

## DURANGO

Boluntario taldeak auzoka antolatu dituzte:  
**638 102 424**  
durangoauzolana@gmail.com

## ELORRIO

Laguntza behar duten pertsonak Elorrioko Udaltzainen bulegora edo **946 820 218** telefono zenbakira deitu, 12:00ak baino lehen

## IURRETA

Laguntza behar duten herritarrentzako telefono zenbakiak:

### ASTELEHENETIK - BARIKURA

10:00 - 14:00: **679 237 129 / 644 306 355**  
16:00 - 20:00: **617 144 737 / 618 683 087**

### ZAPATU-DOMEKETAN

10:00 - 14:00: **679 237 129 / 644 306 355**  
Herritarren sarean boluntario izateko: **666 101 373**

## MAÑARIA

Beharrizana dutenentzako telefono zenbakiak:  
**94 681 89 98 / 654 653 176**

## OTXANDIO

Otxandioko elkartasun sarearen telefono zenbakia beharrizana dutenentzat zein boluntario izan gura dutenentzat: **648 023 531**

## ZALDIBAR

Zaldibarko gazteen telefono zenbakia:  
**660 341 642**

## ZORNOTZA

Zornotzako Udalaren eta Gurutze Gorriaren sarea:  
Boluntario izateko: [voluntariadobizkaia@cuzroja.es](mailto:voluntariadobizkaia@cuzroja.es) edo  
Herritarren Arreta Zerbitzuaren (HAZ) bidez

Zornotzako gazte taldearen laguntza sarea:  
[elkartasuna.zornotza@gmail.com](mailto:elkartasuna.zornotza@gmail.com)  
**641 873 166**



LEHIOR ELORRIAGA. Argazki artxiboa.

## “Munduko Kopa uztailean hastekoa da orain, baina batek daki egingo den”

Oihana Azkorbebeitia lasterkari abadiñarrak zalantza du aurtengo mendi lasterketen denboraldia jokatu den

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Mendi lasterketen denboraldia hasi berri zegoen, baina osasun alerta egoerak hankaz gora ipini du dena. Lasterketa batzuk, Euskal Herrikoak zein nazioartekoak, uda ostera arte atzeratu dira eta beste batzuk bertan behera gelditu dira.

**Zelan daramazu konfinamendua etxean?**

Denon antzera, pentsatzen dut, kalera irteteko eta haizea hartzeko gogoz. Ahal den neurrian, ondo daramat konfinamendua, baina apur bat gogaitzen ere hasita nago.

**Eta goi mailako korrikalari lez, zelan eragiten dizu? laz nazioarteko hainbat lasterketatan parte hartu zenuen, eta mendian ordu askoan egotera ohituta zaude.**

Ez dut bidaien eta nazioarteko lasterketen falta handirik igarten. Iaz gustura ibili nintzen batetik bestera, familian ere bai inoiz, baina gaur egun bizi dugun egoera larria ikusita, hori ez da garrantzitsua. Osasuna bai, ostera, denona. Txakurrak hartu eta goizean basora joatea haizea hartzeraz, bai, hori beharrezkoa dut. Eta horren falta igarten dut batez ere, mendiak ematen didan askatasunaren eta haizea hartzearen falta.

**Bazabiltza etxean entrenatzen?**

Entrenatzen, ez. Txakurrak ditudanez, goizeko paseoa bizkor-bizkor egiten dugu. Etxean ariketa batzuk egiten ditut, luzaketa ariketak gehienbat, baina ez dut entrenamendutzat hartzen.

**Denboraldian, zelan eragingo dizu honek guztiak?**

Denean izan du eragina. Lasterketak geldi daude, Euskal Herrikoak, Espainiakoak zein nazioartekoak. Munduko Kopa Japonian eta Txinan zen hastekoa, sasoi honetan, baina ez neukan joate-

pak baino gehiago arduratzen nau etxe inguruan mendira ez joateak.

**Ogibidez, al baitaria zara. Lanean jarraitzen duzu?**

Gure klinikak zabalik jarraitzen du. Itxialdiaren lehenengo hamabostaldian, klinikako nagusia baino ez zen lanean joan, eta gero hasi nintzen ni, baina oraintsu jakinarazi didate ERTEA aplikatuko digitela.

**Ume biren ama ere bazara. Neurriak arinduko dituztela dirudi.**

Bai, eta beharrezkoa da. Umeak txapeldun batzuk dira. Etxean ondo dugu antolatuta jolasteko eta ikasteko ordutegia, eta ondo daramate konfinamenduaren kontua, baina egunean zehar tentsio uneak ere sortzen dira, eta normala da, umeek euren energia askatu behar dute eta. Beharrezkoa dute eguzkia hartzea eta korrikaldiren bat egitea.

“**Umeek ere beharrezkoa dute kalera irtetea, eguzkia hartzea eta korrikaldiren bat egitea**”

ko konturik. Orain, uztailearen 30ean hastekoa da Kopa, baina batek daki egingo den ala datorren urtera arte itxaron beharko dugun. Hala ere, Munduko Ko-



### DURANGO KABILDUOSTE

Aurki Durangon eraikinak egingo dira, Kabilduoste zona eksklusiboan, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren proiektu berria Durangon,

### KABILDUOSTE

Informa zaitetz!

946 462 041

**sukia**  
Zure etxean zaude. Estás en tu casa

www.sukia.com